



EUSKARALDIA

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean gauzatuko da Euskal Herri osoan, **Euskaraldia: 11 egun euskaraz** ekimena.

Euskararen erabilera handitu eta **eguneroko hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa soziala** da Euskaraldia; izan ere, uste baino jende gehiagorekin egin dezakegu euskaraz.

Euskaraldian euskara ulertzen duten eta 2018an gutxienez 16 urte bete dituzten herritarrek har dezakete parte.

Bi rol aukeratu daitezke horretarako, eta **ariketa egiteko modu bana** adieraziko dute.

* **Ahobizi:** "Ulertzen duenari euskaraz egingo diot, hark erdaraz erantzun arren. Ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo diet".

* **Belarriprest:** "Egidazu euskaraz, nik ulertzen dut eta. Agian erdaraz erantzungo dizut, baina zuk niri euskaraz egitea nahi dut".

Ekimenean parte hartzeko, aldez aurretik izena eman behar da. Izena ematen dutenek gomendioak eta zein rol aukeratu duen erakusten duen txapa jasoko dituzte.

Honez gain, Euskaraldiak hizkuntza-ohituren aldaketan duen eragina ikertuko da.



Izen-ematea: www.euskaraldia.eus

Informazio gehiago, www.euskaraldia.eus atarian.

Euskaraldiari buruzko [bideo azalpen laburra duzue hemen](#)

(baita [gaztelerazko azpituluekin](#) ere)



Horrez gain, hemen ikusten duzuen infografiak *ahobizi* edo *belarriprest* izatea erabakitzen lagunduko dizu.





11 EGUN EUSKARAZ
2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

EUSKARALDIA



AHOBIZI edo BELARRIPREST?

Euskaraldian parte hartu nahi dut.
Baina zein rol aukeratuko dut?
Belarriprest? Ahobizi?

1 Norbaitek euskaraz egiten
dizunean, ulertzen al diozu?

BAI

EZ: Euskaraldia ez da zuk parte hartzeko egokia. Ulermena landu dezakezu eta hurrengoan parte hartu. Hala ere, aurrean giroa sortzen eta errazten lagundu dezakezu.

2 Prest al zaude jendeak zuri euskaraz egiteko?
Ondo hartuko al zenuke dakiten guztiek zuri euskaraz egitea?

BAI

EZ: Euskaraldia ez da zuk parte hartzeko egokia

3 Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean ulertzen duten guztiekin euskaraz soilik egiteko prest al zaude? Ezagunekin zein ezezagunekin, edonon eta edonoiz, batzuetan solaskideak erdaraz erantzun arren?

BAI



EZ

